

GRAHAM WATSON

Europako
Legebiltzarreko
Liberal demokraten
taldeko burua



«Espainiak ez du inoiz arazoa konponduko bide militarrik oinarri hartuta» /10-11

GABRIEL ERKOREKA

Konpositorea

«Programatzailearen sentsibilitate urria da arazoa, ez entzulea» /44-45

ARGENTINA

Auzitegi Gorenak argentinarrak engainatu dituela ohartarazi du Duhaldeak /24

ETA-REN PAPERAK

EAJko ehun burukideren izenak agertu dira ETArri atzemandako zerrendetan

EBBko, Eusko Jaurlaritzako eta foru aldundietako arduradunak daudela esan du Joseba Egibarrek

ETAren kontra Poliziak Frantzia egindako operazioetan EAJko ehunik gora burukideren izenekin osaturiko zerrenda atzeman dute. Xabier Arzalluzek eman zuen horren berri, atzo goizean, eta kritika gogorak egin zizkion PPri, zerrenda horiek bazeudela jakin arren alderdi jeltzaleari ETArekin aritzea egotzi diolako. Joseba Egibarrek ere zerrenda horiek badaudela esan zuen, eta azken astean agertuagatik, aurreko hilabeteetan ere Poliziak atzeman zituela gaineratu zuen. /8-9

FUTBOLA



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Golaz gain, garaipena ere ospatu ahal izan zuten txuri-urdinek, baina asko sufrirituta.

REALA 2

VILA-REAL 1

Realak ez du hutsik egin

Alavesek ere garaipena lortu du Deportivoren kontra Coruñan

Partida ona egin ez arren, Realak ezinbesteko zitzaien garaipena lortu zuen atzo Anoetan, Vila-realen kontra. Mikel Aranburuk egin zuen lehen gola, eta Vila-realek hiru minutu geroago berdindu zuen. Amaitzeko sei minutu falta zirela, De Paulak sartu zuen garaipenaren gola. Alavesek ere hiru puntu garrantzitsu irabazi zituen Coruñan; hauek, baina, Euro-pari begira. /29-30

GEHIGARRIA



/erdiko orrialdeetan

ZAPALKUNTZA

Gazteriaren kontrako jazarpena salatzeko, gose greba mugagabea hasi du Segi-k

«Salbuespen egoerari» aurre egiteko, baraualdia egingen dute gazte erakunde 17 kidek /12



LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

Iruñeko Asuncion elizara sartzeraoan protestaren berri eman zuten.